arratia · ubide · zeberio

TOKIKOM

begitu 20 urte

2023ko maiatzaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.eus

406

Oskar Garro txirrindulari igorreztarra Espainiako Kopako lider

14. orrialdea

Ubidestroi Trail, hilaren 27an

Maiatzaren 27an jokatuko da Ubiden, Ubidestroi Trail, 2.000 metro desnibeldun eta 28 km-ko mendi lasterketearen bigarren edizinoa. Gorbeiako tontorretik pasetan da ibilbidea. Igazko irabazleek, Hassan Aitchauk eta Oihana Azkorbebeitiak emon dabe izena. Arrastian, umeentzako lasterketea eta jai giroa egongo dira herrian. 15. orrialdea



Iñaki Iturrioz garaile, Diman jokatutako Udabarria Bertsotan-en

16. orrialdea

Gartzen Martinezen erakusketea Igorren

Bagilearen 19ra arte, Gartzen Martinez Sagarna igorreztarraren, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* argazki erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Herri kirolaren munduagaz lotutako 24 argazki ikusi daitekez bertan.

Argazkietan agertzen diran kirolari horreetako batzuk arratiarrak dira: Aitzol Atutxa, Irati Astondoa, Pabi Astondoa, Tubi Bustinza eta Jon Loiola, esate baterako. Kirolarien mobimentuen momentu berezi bat harrapatu eta persona horren mamia, eta zergaitik egiten dauan egiten dauana, erakusten dabe argazkiok. 8. eta 9. orrialdeak

Jentilak Diman maiatzaren 27an

Gauean, 22:00etan, kalejirea egingo dabe personaia mitologikoek herritik eta ostean, ikuskizuna egongo da pelotalekuan. Hiru antzezlan ardatz eta beste emonaldi asko dituan ikuskizunean, 100 dimoztar inguruk parte hartuko dabe. Tradizinotik harago, mitologia birsortzea eta mundu ikuskera bat erakustea bilatzen dabe antolatzaileek. 10. orrialdea

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Alkategaiak prest maiatzaren 28ko hauteskundeetarako

Hauteskundeen ostean herri batzuetan alkatea aldatuko da, agintean dagoan partiduak ez daualako lortu alkatetzea edo, lortuta be, alkategaia ez dalako oingo alkatea. EAJ-PNV, EH Bildu eta Ubideko Herri Kandidaturako alkategaiak nortzuk diran batu doguz. 6. orrialdea

ARRATIA

Amagoia Villanueva da AUMko Bardintasun Teknikari barria

Amagoia Villanueva Andueza durangarrak hartu dau Batirtze Barreroren lekukoa Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuan. Bere lehenengo helburua, "herri mailako mobimentu feministearen izakerea ezetu eta ikusi zelango artikulazino maila daukan" jakitea dala dino, erakunde eta herritarren artean ildo finkoa sortzeako. 7. orrialdea

IGORRE

Sukaldari bat berreskuratzeko mobilizazinoak eskolan

Inazio Zubizarreta eskolako jantokian bost sukaldari egon ohi dira, baina aprilaren 16tik aurrera, lau sukaldarigaz dabiz beharrean. Guraso alkarteak azaldu dauanez, Eusko Jaurlaritzak ume kopuruaren arabera jagokien persona baten baliabidea kendu deutse. Hori dala-ta, ume guztientzako kalidadezko jantoki zerbitzua aldarrikatzeko mobilizazinoak egiten dabiz Igorreko eskolan.

Holan, Guraso Elkarteak maiatzeko lehen bariku bietan salatu eban egoerea, hilaren 5ean bazkaria kalean eginda eta 12an lapikokada zaratatsuagaz. 178 umeren familiak batu ziran lehen eguneko protestara. 5. orrialdea

Literatura txokoa

ENSAYO SOBRE LA LUCIDEZ

Jose Saramago (1922-2010), Nobel saridun idazlea izateaz gainera, persona buruargia zan. Akorduan daukat behin preguntau eutsienean andren kontrako indarkeriaren gainean, erantzun ebala hori ez zala andren arazoa, gizonena baino; eta amaitu egingo zala gizonek indarkeria egiteari ixten eutsienean. Horren erraza. Horregaitik proposatzen eban gizonen manifestazino handiak eta gizonek amaitzea indarkeriagaz. Baina, gizonek euren arazoari aurre egin gura ez deutsienez, ez da ezer aldatu. Erraza emon arren, besteek ikusi ez daben urtenbidea ikustean datza jenialtasuna.

Ensayo sobre la lucidez (2004) nobelan be antzeko jenialtasun baten oinarritzen da. Demokrazia ustel baten, udal hauteskundeetan, izen bako uri baten, botoen %83 boto zuriak dira. Gobernuak atoan ezartzen dau emergentzia egoerea eta gero eta ebatzi autoritarioago eta errepresiboagoak hartzean dauz, prensaren laguntzeagaz. Nobeleak beraz, poderearen mekanismoez eta agintarien jarkerez egiten dau berba. Eta bertan, zer gertatuko litzateken sistemearen mekanismoak eurak erabiliz (botoa), poderea modu txarrean erabili dabenei (alderdiei) poderea emon beharrean, poderea kentzeako erabiliko balira planteetan dau. Inork ikusi ez dauan urtenbidea.

Ensayo sobre la lucidez-en *Ensayo sobre la ceguera* (1995) nobelan agertutako personaia nagusiak agertzen dira eta haren jarraipena da. Zuriaren metaforea be, ardatza da nobela bietan. Aurreko nobelan, itsutasuna zuria zan, itsuek dana zuri ikusten eben eta honetan, boto zuria emoten dabe herritar gehienek. Ha-ta guzti be, ha irakurri barik eukinda be, irakurri daiteke hau.

Estiloari jagokonean, ezer barririk ez Saramagoren irakurleentzat. Puntuazinoan, koma asko eta puntu gitxi, eta askotan, inguruminguru ibilten da, digresinoetan. Apenas ez da deskribapenik egoten, izen propiorik be ez, eta gauza asko gertatzen dira eta idea asko azaltzen.

Argia, inteligentea, justizia eta askatasunaren aldekoa, poderearen neurribakotasunaren kontrakoa... Saramagoren konzientzia eta adimen argiak gure sasoia ulertzen lagunduten deusku.

Bea Azpiri Rementeria

Jose Saramago

Ensayo sobre la lucidez

Alfaguara, 2004

424 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 15etik 21era
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908
22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Maiatzaren 22tik 28ra
Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305
22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.
Maiatzaren 29tik bagilaren 4ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / *mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*
Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa
688 854 543 / *info@errota.eus*
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitekez *Creative Comons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Arantzazu Areatza Artea Bedia Dima Igorre Lemoa Ubide Zeanuri

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeanuriko EH Bilduren kezka frontoiko obrearen inguruan

EH Bildutik gure kezka adierazo gura dogu Zeanuriko frontoian Udal gobernuak egin gura dauzan obrak dirala-ta. Frontoian konponketak, hobekuntza energetikoak eta gimnasio barri bat egingo dira. Obra honek 1.066.944,92 euroko aurrekontua dauka, proiektua garatzea 69.000 eurotik gora kostau da.

Frontoia handitzeko eta energetikoki hobetzeko pleguak martiaren 21eko plenoan onartu ziran. Gero kontratazino mahaia egin zan baina ez zan inor aurkeztu. Aprilaren 18an larrizko plenoa egin zan eskaintzak aurkezteko epea luzatuteko. Maiatzaren 4an kontratazino mahaia egin zan baina barriro be ez zan inor aurkeztu. Maiatzaren 10ean barriro be beste larrizko pleno bat egin da, oingoan pleguak barrizteko, plegu honen aldaketa nabarmenena eraikuntza enpresei obra bukaeran aurrekontua handitzeko aukerea emoten jakiela da, obrearen %10a gehienez. Eraikuntza enpresek maiatzaren 24ra arteko epea eukiko dabe euren proposamena aurkeztuteko eta hauteskunde eguna baino 3 egun lehenago egingo da kontratazino mahaia.

Igaz obra hau aurrera eroateko dirulaguntza garrantzitsu bat galdu eban Udalak, proiektua ez ebalako epean aurkeztu. Aldunditik dirulaguntza bat jasota dogun arren (355.000 euro), aurten espero zan beste dirulaguntza bat be ez dogula jasoko jakitun gara (200.000). Horrek obrearen ordainketea urte bitan egitea ekarriko dau konpromisozko kreditu baten bidez, beti be gastuak handitzen ez badira (717.000 euro 2023an eta 349.944 euro 2024an). Honek, oindino egin barik dagozan 2024ko aurrekontuetatik, 349.944 euro gastetea suposatuko dau, aurtengorako izan dogun aurrekontuaren %18 bat ia.

Aurrekari honeekaz ondorengoa adierazo gura dogu:

Aurrekontuari jagokonez, uste dogu holango obra handiak, urteko aurrekontuaren erdia baino gehiago, herritarrakaz adostuak izan behar dabela, gitxienez honeek informau egin behar dira. Bestetik, datorren Udalaren osaketea zein izango dan jakin barik ezin da herritarron dirua holan hipotekau.

Proiektuari jagokonez be, gure kezkak adierazo deutsaguz Udal gobernuari. Batetik frontoiko taberna gainean egin gura dan gimnasioan ez da aurreikusten igogailurik, proiektu honetan behintzat. Proiektu honetan gure ustez akatsak dagoz eraikigarritasunaren justifikazinoan eta Codigo Técnico SUA deritxanean, irisgarritasun arloari jagokonez. Udal gobernuari proiektua badaezpadan Arkitektoen Kolegioan zigilatzeko eskatu deutsagu baina ez dau interesik agertu.

Honegaitik guztiagaitik, proiektu honeri gure ezezkoa adierazo deutsagu hainbat plenotan. Argi itxi gura dogu udal instalazinoetan hobekuntza energetikoak egitearen aldekoak garala eta zeanuriztar guztiontzat egokitutako kirol instalazinoak gura doguzala, herritar danen irisgarritasuna kontuan hartuko dabenak.

Zeanuriko Udal gobernuari, gardentasunez eta zeanuriztarron diruagaz arduraz jokatzeko eskatzen deutsagu.

ZEANURIKO EH BILDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXV). Kale berbakunea sustatu guran

ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN):

-Jagoten hasi (naz) _____ eta kirolarien armozuak egiten (dodaz) _____ oin.
-Bai ala? Eta ze armozetan (dozu) _____ oin? Txakurren pentsua? Kar, kar, kar.
-Isilik egon (zaitez) _____ zantar hori!!
-Goizetan oin orloa hartzean (dot) _____ esnetan zopak eginda.
-Eta igarten (dozu) _____ ezer?
-Ba esango (deutsut) egun batzuk barru, gaur hasi (naz) _____ eta... kar, kar, kar.

ERETXIA

Gaur dobakotasuna, bihar unibersaltasuna

GARAZI URIEN ORTUZAR
Irakaslea

Zero eta bi adin tartea jasoten daben Arratiako haurreskoletan bete-betean gagoz egunotan maiatzaren 16a bitartean 2023-2024 ikasturterako haurren izen-emote epealdian. Aurten ostera ez da edozelango izen-emotea izango eta ondorioz urrietakoa be ez da ikasturte hasikera arrunta izango. "Barrikuntza" edo "albiste" lez, datorren ikasturtetik aurrera 0-2 tarteko heziketa eta zaintza buztartzen daben haurreskolak dobakoak izango dirala entzungo zenduen askok daborduko nonon.

Nik ostera haurreskoletako hezitzaile lez, aurten 20 urteko ibilbidea beteko dauan zerbitzu publiko baten dobakotasuna gaur arte denporan luzatu izana ezin daiket barrikuntza edo eguneroko albiste soiltzat bizi. Bai ostera urte honeetan guztietan hezitzaile, langileen ordezkari, familia eta gizarteko zati baten aldarrikapen, eskaera, borondate eta burrukearen ondorioz lortutako lorpen moduan. Oindino gehiago esatera ausartuko neinteke: Haurreskolen dobakotasuna, Hezkuntza Sistema Publikoak eta berau jasoten daben estamentuek 0-2 tarteari zor eutsan aitortzearen zorraren kitapen txiki bat baino ez dala be esango neuke.

Aurreko hamabostaldiko BEGITUko eretxi artikuluan, Hezkuntza Lege Proiektu barriari egiten eutsan erreferentzia Adela Perezek. Lege barri horretan jasoten da dobakotasuna. Akaso Lege Proiektu horretan Haurreskolakazko jaso dan aldaketa baikor bakarra. Izan be zoritxarrez oingoan be ez da 0-3 adin tartea, zikloa bere osotasunean, Hezkuntza Sisteman integretako beharra eta borondatea gauzatu eta Hezkuntza Lege bat nekez izan daiteke balizkoa adin tarte guztiak aintzat hartzean ez badira.

Hori gitxi ez balitz, dobakotasunak umeen izen-emote araudian baldintzak ekarri ditu, interes ekonomiko eta asistenzialismo hutsari protagonismoa emonaz eta arlo pedagogikoa eta familien beharrak mugatuz. Araudi barriak ez deutso beste behin mesederik egingo herri txikietako haurreskolei. Izan be, gogora ekarri gurako neuke haurreskolen sorreran oinarria eta helburua hiru urtetik beherako landa eremuko haur eta familiei kalidadezko hezkuntza eta laguntza "publikoa" eskaintzea eta bermatzea zala, aldi berean familia eta lan bizitzaren arteko bateragarritasuna lortzea bilatzen ebana. Ezarritako baldintzakaz ordea, dobakotasuna bai baina unibersaltasuna ez da bermatu.

Esaten da arbolak ez dirala hostoetatik tiraka hazten eta zuztarrak ondo errotuak dituan zugatza nekez eroriko dala. Eretxi bardinekoa naz bizitzako beste arlo askotan be eta kasurako umeen heziketa eta zaintzari jagokonez be bai. 0-3a behar bezala zuztartu ezik nekez egon daiteke adinean gorako hazkunde eta hezkuntza osasuntsu eta integral bat. Honegaz ez dot etxeko zaintza eta heziketea baztertzen. Alderantziz, guztiz funtsezkoa dala deritxat. Ez dot sinisten bata bestearengandik alternatiba diranik, biek umea eta umezaroa erdigunean jarrita bata bestearen osogarri baino. Haurreskolak konziliazinoa baino gehiago gara (ez dira hezkuntzako gainerako etapak be konziliazinoa neurri handi baten?). Familia batek bere seme-alabak haurreskolaratzea ebazten dauan orduan ez dau bakarrik lana eta familia buztartu ahal izateko egiten, eta dobakotasunak beragaz ekarri dauan araubideak nire ustez familiak ebatzi bat, zaintza eta heziketa eredu bat edo beste bat hautatzera baldintzatuko ditu.

Dobakotasuna bada zeozer baina 20 urteko ibilbidearen ondoren ez geunke ogi papurrakaz konformau behar. Unibersaltasunerako pausuak emonaz jarraitu beharko dogu aurrerantzean be gogor egunerokoan. Herri txiki honetan 0-3a be bagara eta... izan gaitezala!

PANTAILA euskaraz
EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ALDEKO EKIMENA

LUMATUTEN

CLARA LUJA AZPIRI

Internet eta erraztasunak

Gogoan dozue pentsetan genduanean internetegaz dana errazagoa izango zala? Beharbada zuetako batzuek oindino pentsetan dozue hori, ez dakit. Baina seguru nago ez nazala bakarra internet eta bere "erraztasun" guztiak gorrotatzen hasita dagoana.

Hasteko, gero eta gatxagoa da gura dozunera heltzea, webgune batean edo bestean. Zazpi mila iragarki zarratu behar dozuz lehenik eta behin; askotan kontu bat egin; batzuetan harpidetzea egin eta ordaindu irakurten jarraitu ahal izateko... Egunkari klasikoak, barriz, egunkaria erosi, zabaldu eta irakurri ahal dozu, beste barik.

Interneta zailtzen dauan beste elementu bat pasahitzak dira. Begira, ulertzen dot beharrezkoak dirala eta leku guztietan bardina ipinteak hackeatzea errazten dauala, baina... suposatzen da gogoratu behar doguzala, ez dakit, 30 pasahitz desbardin? Eta ez badozu gogoratzen webgune konkretu horretan erabili zenduana, orduan ezin zara sartu eta ezin dozu informazinoa ikusi. Edo eskatzen deutsazu berreskuratzea eta gogoratuko ez dozun beste pasahitz bat ipinten dozu. Bai, batzuetan *post-it* baten idatzi ahal dozu, baina gero, izango dogu akorduan non itxi dogun *post-it*a?

Eta zer esan zerbitzuei buruz.

Saiatzen zara izapideren bat egiten eta beti agertzen da erroreren bat. Pasahitza ez da zuzena. Posta elektroniko helbidea ez da existiduten. DNI elektroniko bat behar dozu tramitea egiten hasteko, baina hori ez badaukazu sms bat bidaliko deutsugu. Sms-a ez da ailegetan. Telefonoa erabilten saiatzen zara. Telefonoko makinak ezetuten ez dozun hamabi zenbaki eta letra kodea sartzeako eskatzen deutsu. Ilarak gorde behar ziran garaietako nostalgia sentitzen dozu, hori bai zalako erraza!

Hau lar izango da, akaso. Bretxa digitalaren alde okerrean gagozanon kexak. Zerbitzu mota guztiek ditue arazoak eta beti egongo da kexatzeko errazoiren bat edo beste. Baina azken urteotan... Pasahitz eta internet gune kontuetan itoten gabizan sensazinoa izatea gertatu daiteke, eta nik gitxienez internet bako aukera guztiak hartzean segiduko dot. Nahiz eta erraza ez izan.

ZERTZEAN

ALVARO RABELLI

Atzen jubilaua

Teresa, gure eskolako bedela, erretretara pasau barri da. Atzen hogeita bost urteak leku berean lan eginda erretiroa hartu dau. Hartu ez, emon egin deutsie, eta hori gaur egun ez da gitxi. Horregaitik ospatu dogu, ez personaren lan-bizitza amaitzea atsegina dalako, baizik eta, seguru asko, gure eskolakoen artean Teresa izango dalako pensino publikoa gozatuko dauan atzena. Guri, gainontzekooi, oindino urte mordoa geratzen jaku erretiroa hartu ahal izateko, eta badakigu jakin, jubilau gura ezkero, geure boltsikotik ipini beharko doguna, lan egiten badogu gainera. Neuk behintzat, neure burua ikusten dot hirurogeita hamabost urtegaz lanean, esaterako oindino gure artean ez dogun Euskal Erotismoaren Museoan sarrerak saltzean, bospasei hizkuntzetan bisita-gidatuak egiten eta Viagragaz trafiketan. Holan balitz, ez legoke hain txarto, baina duda egiten dot, horregaitik behar lez ospatu dogu Teresarena.

Harora joan gara bazkaltzen, San Agustin hotel entzutetsura. Berau komentua izan zan, kuartela, espetxea eta ospitalea gero. Seguru asko, halango sasoietan inork ez eban bertara borondatez joan gura izango, gaur ordea, dotore antzeko ostatua danean, lau izarrekoa, jenteak polito ordaintzen dau bertara joatearren. Klaustro ederra dauka, baina ohi lez, ikutu modernoa emon gura deutsan apainketa guztiz txabakanoa da, gustu txarrekoa nire irudiko. Edozelan be, leku ona halangoak ospatzeko edota Errioxako ardogileakaz batera enpresa bazkaria egiteko.

Danok joan gara, Juan izan ezik. Juanek Jaungoinkoaren kausari eskaini deutso bizitza, horregaitik emakumeez inguratuta desosegatzen da, bere baloreen etsaitzat daukaz, eta horregaitik be, gauero, tutu arrosaz jantzirik bere burua zintzilikatzen dau argiaren kabletik hortz artean laranja azal zati bat gogor estutzen dauan bitartean.

Bazkaria ez da txarto egon, batez be postreagaz hartu dogun Zacapa rona. Bazkalostean etorri dira Gaztelako jotak, Portugaleko fadoak eta Salamancako tunaren kantak. Danak gelditu dira guri begira, mutilok zer kantauko. Isilik lotu gara. Orduan Blasek festa apurtu dau: gogora ekarri deusku Defcon2 talde galiziarraren letra bat: "tuno bueno, tuno muerto". Isilunea zabaldu da klaustroan. Nire begiek, bien bitartean, Taniaren eskotera eta harriz estalitako ate zahar batera jo dabe. Eta imajinetan hasi naz atearen eta Taniaren eskotearen bestaldean zer ostenduten dan, komentu zaharreko upategia? Letrinak? Suetea? Ala oihal baltz finaz bildutako haragi goxoa akaso? Baita be, zergaitik halango lekuak estaltzen ete diran ibili naz gogoetatzen. Teresari mosua emonda ospa egin dot bertatik. Herrira etorri naz tren maketen moduluak ikusten. Bertan, atzera be, alkartu naz beste jubilau batzukaz, maketa egileakaz, eta pentsau dot hori be ezin izango dodala egin, ze jubilatzen nazanean, holango afizinorako ez dot sekula diru nahikorik eukiko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkero, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak *begitu@topagunea.com* helbidean.

BEGI TXINDORRA

Akaso sasoi bateko jenteak sasoian sasoikoa jaten gendualako izango da, baina badagoz udabarriko jateko batzuk, ez bakarrik umetan, oin be ilusinoa egiten deustenak: antxoak, mailukiak eta idarrak, batez be.

Gaur egun, idarrak urte osoan izoztuta erosi daitekezan arren, freskoak udabarriko lujoa dira. Argi dago jateko horreek, poza ez deustela neuri bakarrik sortzean; eta horregaitik, produktuaren inguruko jaia ospatzen dabe herri batzuetan. Ondarroan, Antxoa Eguna, udabarriro.

Maiatzaren 13an izan da aurten. Turrunak hiru aldiz joz hasi zan jaia eta antxoak pla-pla, antxoa pudinga, antxoa enpanadillak, antxoa-tortilla, antxoa kroketak eta antxoa tenpura jateko aukerea egon zan. Adurra dariola nago, zerrenda hutsagaz.

Eta nago pentsetan, hemen, Arratian, zergaitik ez ete dan egiten Idar Eguna. Produktua, kultura eta gastronomia batzeako modu gozoa litzateke. Herriko jenteak, kuadrillek eta alkarteek, idarrak modu askotan prestatu eta danok jateko jaia.

Komentetearren.



IGORRE

"Kolorez jantzi dagigun Igorre" lemapean, azoka solidarioa eta auzolana egingo dabez eskolan

Erredakzinoa

Maiatzaren 19an, barikuan, arrastiko 16:30etik aurrera, Inazio Zubizarreta Eskolako Hezkuntza Komunitateak; hau da, IGEk, ikaslegoak eta Hezkuntza taldeak, Azoka solidarioa egingo dau eskolako patioan. Auzolanean hainbat gela margoztuteko deia be egin dabe antolatzaileek.

Igorreko eskolako 6. mailako bertsolariek emongo deutsie hasikerea, jaia eta lana batzean dauan ekitaldiari. Azokan, eskolan batutako bigarren eskuko gauzak eta gelan, Plastika saioetan egindako gauzak egongo dira salgai. Horrezaz gainera, ulea apaindureko eta atzazalak eta arpegia margozteko aukerea izango dabe txikienek, donazino txiki baten truke. Igorreko merkatarien alkartearen laguntza be izango dabe eskolakoek. "Edizino honetan, AMEgaz hartu-emonetan ipini gara eta merkatariei ahal daben neurrian parte hartzeako eskatu jakie. Bildutako produktuak saltzean ipiniko doguz edo arrasti horretan zozketatuko dogun otzararen baten". Meriendetako, antolatzaileek egindako bizkotxoak, tartak eta gailetak egongo dira salgai.

Azoka solidarioan bildutako dirua Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformearentzat izango da.

Auzolana

Adin tarte desbardinetako jentearen artean, auzolanean, Igorreko eskolako Haur Hezkuntzako sarrerea eta 3 urtekoen gelak margoztuko dabez. Lan horreek egiteko, erropa zaharra eroatea gomendatzen dabe antolatzaileek. Umeek be parte hartu ahal dabe margozte lanetan, nagusi baten ardurapean.

IGORRE

Sukaldaria berreskuratzeko mobilizazinoetan dago Igorreko eskolea

Erredakzinoa

Igorreko eskolan, aprilaren 16tik dagoz sukaldari bat gitxiagogaz. Guraso alkarteak azaldu dauanez, Eusko Jaurlaritzak ume kopuruaren arabera jagokien persona baten baliabidea kendu deutse. Hori dala-ta, ume guztientzako kalidadezko jantoki zerbitzua aldarrikatzeko mobilizazinoetan hasi dira Igorreko eskolan.

Aprilaren 16ra arte, 5 sukaldari egozan beharrean eskolako suetean, baina harrezkero lau baino ez dagoz, eta ezin dira ume guztientzako menuak prestatu eskolan. Sukaldaria berreskuratzeko asmotan, eskolea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailagaz ipini zan hartu-emonetan, eta eskolako zuzendaritzearen arabera, jaso eben erantzuna izan zan 15 menu *catering* bidez emoteko.

Urtenbide hori baztertzailea dala eretxita, jatekoaren kalidadea ez dalako bardina, maiatzaren 3an, guraso alkartekoak, gurasoak, sukaldariak, eskolako zuzendaritzea eta udal ordezkariak, alkatea tartean, batzartu ziran egoerearen barri emoteko eta danon artean adostuteko zer egin. "Umeek 10 urte baino gehiago pasetan dabez eskola honetan eta askorentzat otordurik garrantzitsuena da" azaldu dabe gurasoek. Horregaitik kalidadezko jantoki zerbitzua funtsezkotzat joten dabe eta sukaldaria berreskuratzeko mobilizazinoetan hastea ebatzi eben.

Mobilizazinoak

Pankartak eta elkarretaratzeez gainera, beste protesta ekintza batzuk be adostu ditue kaltetuek. Holan, hilaren 5ean, protesta moduan kalean bazkaldu eben 178 eskola-umek, euren familiek eta herriko beste eragile eta erakundeek eta elkarretaratze zaratatsua egin eben maiatzaren 12an, eskolako patioan.

DIMA

Bagilaren 2 eta 3an bere eguna ospatuko dau Dimestenek

Erredakzinoa

Dimesten herri hezitzailearen eguna ospatuko dabe bagilaren 2an eta 3an, bariku arrastian hasi eta zapatu osoan. Beste ekintza akoren artean, jantzak, kantuak, bertsoak eta ikuskizunak egongo dira. Kontzertuak eta erromeria be ez dira faltauko. Zapatuan, lorak landatu eta artoa be garanduko dabe hurreratzen diranek.

Oin arte, jarduera ugari antolatu arren, Dimesten eguna ospatuten dan lehenengo urtea da. Dimesten, herri hezitzailearen filosofian oinarritutako herri proiektua da eta hiru zutabe ditu: eskolea, Udala eta alkarte edota herritarrak. Talde motor edo eragile bat dago eta zabalik dago herritar guztiei.

Dimesten egunaren helburua da "herriko alkarteakaz eta danon artean (Ni-tik gu-ra) egun bat antolatzea, alkarlanean eta parte-hartzean oinarrituta eta herri hezitzailearen printzipioak kontuan hartuta" dinoe antolatzaileek. Herri hezitzailearen printzipioak hurrengoak dira: euskerearen erabileratik abiatuta, euskeratik eta euskeraz, eta umeen kultura aitortuz, aisialdi hezitzailea sustatutea; parte hartzeako eta ebazteko ahalmena emotea; herritar zaurgarriak erdigunean ipintea; feminismotik abiatuta, aniztasunean, parekide izatea; alkarlanean, herriko komunidade sarea eta auzolana sustatutea; bertoko kutura trasmitidutea eta ingurumen naturala jagon eta errespetetea.

Egitaraua
Bagilak 2, barikua
17:00etan, sareak.
18:30ean, pelotakadak.
20:00etan, konzentrazinoa.
20:30ean, jantza kolektiboa.
21:00etan, kantu poteoa, pintxo potea eta umeentzako afaria.
22:30ean, bideoa: Pantailak Euskaraz eta argazki kolektiboa.
23:00etan, kontzertua.

Bagilak 3, zapatua
11:00etan, pastorala.
12:30ean, lorak landatu.
13:30ean, artoa garandu eta lokotzak.
14:30ean, bertso-bazkaria Jon Maia eta Aitor Sarriegigaz.
18:00etan, erromeria.

ZEANURI

Gorbeiako Aterpean egingo ditue udalekuak ume eta gaztetxo zeanuriztarrek

Erredakzinoa

Oingo udan, Zeanuriko bederatzi eta hamasei urte bitartekoek udalekuak Gorbeian igaroteko aukerea izango dabe, Arrabako aterpean hain zuzen be. Txanda bitan antolatu dira udalekuak. Batetik, 2011 eta 2014 bitartekoak bagilaren 21etik 23ra joango dira. Bestetik, 2007 eta 2010 artekoak, garagarrilaren 10ean heldu eta 14an bueltauko dira, gau bat gehiago.

Izena emoteko atzen eguna bagilaren 1a izango da, ordainketea be egin behar da udaletxean izena emoterakoan. Kasu bietan, hogei plaza dagoz gehienez eta gitxienez, hamabost bete beharko dira udalekua aurrera eroateko. Umeen kasuan, prezioa ehun eurokoa da eta gaztetxoena, berrehun eurokoa. Izen-emotea eginda dagoanean, batzar baterako deialdia egingo dau Udalak, ekintzak eta plana zehaztuteko.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Makatzak taldeak Lurraren defensan egingo dan manifestazinora deitu dau

Maiatzaren 20an izango da, 18:00etan, Gasteizen manifestazino nazionala "Lurraren defentsan, Euskal Herria Bizirik!" lemapean.

Erredakzinoa

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak, urtailean egindako makroproiektuen inguruko jardunaldiaren harira, Euskal Herri osoko taldeak batu eta manifestazino nazionala deitu dau, natura babestuko dauan politika eredu bat eskatuteko.

Urtailaren 21ean Igorren jardunaldia antolatu eben Makatzakekoek, Arratian, Bizkaian eta Euskal Herrian egiten eta onartzen dabizan makroproiektuen inguruan berba egiteko. Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako alkarteak batu ziran han, eta bakotxak bere inguruko makroproiektuaren barri emon eban. "Sano positiboa izan zan, indarrez bete ginan eta alkarregaz ekin geuntsan lanari Euskal Herri osoan egiten dabizan ingurumenaren suntsiketeari aurre egiteko. Jardunaldi honeek mugarri izan dira, aldarrikapenak kolektibizau egin dira, makroegitura guztiak inporta jakuz" azaldu deutsie BEGITUri Makatzak Arratiako Ekologistak taldetik.

Igorreko Adierazpena

Jardunaldi horreen ondorioz, Igorreko Adierazpena egin eben. Bertan, garatzen dabizan edo planifikauta dagozan megaproiektuak jasoten dira: Gueñes-Itsaso-Muruarte autopista elektrikoa (250 torre baino gehiago), Espainiako eta Frantziako estaduen arteko konexino elektrikoa Bizkaiko Golkoaren bidez; Beste 3 autobide elektriko barri (2.000 torre baino gehiago); haize-sorkuntzako poligonoak; Arabako 10 poligono fotovoltaiko inguru eta Abiadura Handiko Trena, berbarako.

Makatzak taldekoen arabera, "Hedapen hori guztia diskurso faltsuek babesten dabe. Diskurso horreek iturri barriztagarrietara aldaketa teknologikoa egitearen alde egiten dabe soilik, baina ez ditue kontuan hartzean iturri barriztagarrien ezaugarriak, ezta horreek ezartzeak dakarzan eragin izugarriak be". Eta ezarpena antolatu beharrean, Eusko Jaurlaritzak modu akritikoan babesten dauala dinoe, "Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialik (LAP) izan barik. Banaketa-sare elektrikoak ez dira lurralde-inpaktuagaz aztertzen, eta LAPen tresnetan ez da horreen trazadurea jasoten". Gainera, makroproiektuen ingurumen adierazpena ebazten dauan ingurumen organoa proiektu horreek sustatzen dituan sail berean dagoala kritiketan dabe.

Eredu honek, galerak sozializau eta etekinak pribatizetan dituala salatzen dabe eta makroproiektuek inpaktu latzak dituela. Inpaktu horreen artean, herritarren osasunerako mehatxu larria eta bizi-kalidadea eta eragindako personen ondasunen balioa nabarmen galtzea dagoz. Baita, zor ez-legitimoak sortutea be, eta "zaharkitua eta jasangaitza dala frogatu dan eredu energetiko zentralizau baten aldeko apustua" dala dinoe.

Hori dala-ta, Adierazpenean eskatzen da besteak beste, 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluak geldiarazotea, lege honek parte-hartze publikoa ezabatzen daualako, eta erakunde eta persona interesdunei 50 MW-etik gorako proiektu energetikoen espedienteak ezetuteko aukerea eta alegazinoak egin ahal izateko aukerea kentzean deutsielako. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak apustu egiten daben azpiegitura handien eraikuntzan be moratoria bat ezartzea eskatzen da.

Maiatzaren 20ko mobilizazinorako deialdi adierazpena

Igorreko adierazpena ekoizten zan bitartean, eragile gehiago gehitu ziran, proposamen barriakaz. Nafarroako alkarte ekologistakaz kontaktua sustatu da eta Iparraldeagaz be ekintza komunak egin dira. Holan, manifestazino nazionala egiteko proposamena sortu zan eta beste adierazpen bat egin eben, mobilizazinoetara deituz.

"Trenbide proiektu eta azpiegiturak, zentral eolikoak edo fotovoltaikoak eta horreei jagokiezan banaketa lineak, erraustegiak, negutegi industrialak eta animaliak hazteko ustiapen intentsiboko fabrikak. Horreek guztiak agertzen dira Euskal Herriko mapan, jada martxan dagozan proiektuak edo laster gauzatzekoak diranak. Proiektu horreek eremu komunalak eta laborantza lurrak bereganatzen ditue, gure lurraldea egituratzen daben eta bizitzari eusten deutsien ekosistemen desagertzea ekarriz. Honen guztiaren asmo argia ikusten dogu: landa eremua eta bertako bizimodua apurka-apurka desegitea, gure mantenuaren oinarri diran komunidade txikiak eta baserriak desagertu arazoz". Holan diru publikoa patrika pribaduetara desbideratzen dala dinoe adierazpenean. "Holantxe xahutu da eta oindino xahutzen dabiz horrenbeste diru AHT-an, erraustegietan eta zabortegi industrialetan". Administrazinoak, legeria korporazino handi horreen interesetara egokitzen dauala dinoe.

Hori dala-ta, natura babestuko dauan politika bat eskatzeko, "personen beharrei erantzungo deutsana, deszentralizaua eta tokian oinarritutakoa" egingo da manifestazinoa Gasteizen hilaren 20an.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

BEGITUren eremuan, EAJ-PNV, EH Bildu eta Ubideko Herri Kandidaturako alkategaiak, 14 gizon eta 6 andrazko dira

Erredakzinoa

Maiatzaren 28an, Foru eta Udal hauteskundeak izango dira. Horrek, herri batzuetan alkateak aldatzea ekarriko dau, partidu horretako alkategaia ez dalako aurreko legegintzaldian alkate egon dana, edo agintean dagoan partiduak ez daualako lortu alkatetzea. Alkatea bai ala bai, aldatuko daben herrien artean, Areatza eta Lemoa dagoz. Izan be, Asier Garcia eta Saioa Elejabarrieta, oingo alkateak, ez dira maiatzaren 28ko hauteskundeetako EH Bilduren alkategaiak herri horreetan: Peru Perez de Anuzita da-ta alkategaia Areatzan, eta Eukeni Bikarregi, Lemoan.

Amaitzear dagoan legegintzaldi honetan, alkatetzea EAJ-PNVk dauka Artean, Bedian, Diman, Zeanurin eta Zeberion, eta EH Bilduk, Arantzazun, Areatzan, Igorren eta Lemoan. Ubiden, Ubideko Herri Kandidatureak dauka agintea.

Herri gehienetan, EAJ-PNV eta EH Bilduz aparte, kandidatura gehiago be aurkeztu diran arren, momentu honetan udaletan ordezkaritza daukienen alderdietako alkategaiak ekarri doguz hona. Diman eta Artean herri kandidaturak dagoz udaletan baina hauteskunde honeetarako ez dabe zerrendarik aurkeztu. EAJ-PNVren alkategaiak honeek dira: Arantzazun, Txus Dacosta; Areatzan, Josu Basozabal; Artean, Alberto Intxaurraga; Bedian, Aitor Sorriketa; Diman, Josu Gorospe; Igorren, Olatz Urkiza; Lemoan, Esther Iturrioz; Ubiden, Amaia Artetxe; Zeanurin, Eider Ajuriagerra eta Zeberion, Karlos Idirin. EH Bildukoak, barriz: Arantzazun, Asier Aburto; Areatzan, Peru Perez de Anuzita; Artean, Izaskun Betzuen; Bedian, Alberto Sanchez; Diman, Jose Mari Atutxa; Igorren, Illart Gumuzio; Lemoan, Eukeni Bikarregi; Zeanurin, Nahia Urrutxua eta Zeberion, Ekain Goti. Ubideko Herri Kandidaturako zerrendaburua, Zigor Iturrioz da.

Alkate izateko aukera handienak dituen EAJ-PNV, EH Bildu eta Ubideko Herri Kandidaturako zerrendaburuak, guztira 14 gizon dira (hiru alderdi honeetako zerrendaburuen %70) eta 6 andrazko (%30). EAJ-PNVk, 4 andrazko ipini ditu alkategai, bere zerrendetako %40, eta EH Bilduk 2, bere zerrendetako %22,2. Herri Kandidaturakoa gizonezkoa da.

ARRATIA

Arratiako Guraso Elkarteen II. Jaia ospatuko dabe Igorren

Erredakzinoa

Maiatzaren 20an, Arratiako eskola eta institutu guztietako guraso alkarteak Igorren batuko dira jaia alkarregaz egiteko. Kezka eta burrukak antzekoak izanda, jaiak alkar ezetuteko aukerea emoten deutse guraso eta umeei.

Mendi ibilbide bategaz hasiko da eguna. Parte hartu gura dabenak, 11:00etan batuko dira Igorreko Goiko Plazan. 12:30ean, ekitaldia egongo da Goiko Plazan be, 6. mailako bertsolari eta jantza garaikideko ikasleakaz. Plaza jantzak be egingo dira Arantzarte jantza taldearen gidaritzapean.

Bazkaria 14:00etan izango da; bakotxak etxetik eroandakoagaz alkarregaz bazkalduko dabe eta Institutuko ikasleek kafe eta postre mahaia ipiniko dabe. Bazkalostean, 16:00etan, edade guztietako umeentzako jolasak egongo dira. Kultur Etxera, kalejiran, 17:45ean joango dira eta 18:00etan, Eletrotxarangak ipiniko dau jai giroa.

Arratiako eskola publikoak

Arratian danak dira herri txikiak eta batzuek ez daukie eskolarik, Arantzazuk, Bediak eta Ubidek, hain zuzen be. Holan, Areatza, Artea, Dima, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Zeberion dagoz Lehen Hezkuntzako eskolak. Insitutuei jagokienean, Arratia Institutua dago Igorren eta Lemoan JB Eguzkitza Meabe IPIan be egin daiteke DBH.

LEMOA

Merkataritzan euskerea sustatzeko kanpainea abiatu dabe Lemoan

Lemoako 30 denda eta tabernak hartuko dabe parte eta guztira 700 sari baino gehiago bananduko dira. Kanpainea, maiatzaren 21era arte izango da "Lemoan euskaraz eskatu eta saria irabazi" lemapean.

Erredakzinoa

Agurra edo eskaera euskeraz egiten dauanari, "hazka eta irabazi" motatako txartel bat emongo deutso dendariak, eta hazkatu ostean ikusiko dau saririk daukan ala ez. "Saria izango baleu, Lemoako beste denda baten trukatu beharko dau txartel saritua. Zorte gitxiago izan ezkero, saririk bako txartelakaz zozketa baten parte hartzeako aukerea egongo da" azaldu dau Udalak bere webgunean. Urduñako bainuetxean persona birentzako egonaldi bi zozketatuko dira.

Sariak danetarikoak izango dira: egin gura dan erosketea merketu, gosari bat, otordu bat, edo produktu jakin batzuetan deskontuak. Sari horreen zenbatekoaren herena dendariek eurek ipini dabe, eta gainerakoa Lemoako Udalak.

Bigarren aldia

Igaz egin zan kanpaina hau lehenengo aldiz eta 22 komertziok hartu eben parte. "Horreetako denda edo taberna batzuk zarratu egin dira, edo jaubez aldatu. Eta ha-ta guzti be, parte hartzaile kopurua 30 establezimentura igon da. Igaz 500 sari baino gehiago banatu ziran, eta aurten 700etik gora".

Aiko hemen izena emon daben establezimentuak: Amalur, Amorrortu jatetxea, Arraibigane, Argazki Ilune, Atxeta taberna, Baskcod, Bikandi taberna, Bizkarra okindegia, Ezkur, Farmazia, Geltokia taberna, Herradura taberna, Intzuntza harategia, Iratxe Ruiz ile-apaindegia, Josier mertzeria, Jubilatuen taberna, Kresala taberna, Laiane ile-apaindegia, Lemoa Doner Kebab, Lemoako Batzokia, Lemoa fruta denda, Lemones taberna, Lezat estetika zentroa, Lur 2000, Luzea ile-apaindegia, Mailuki taberna, Marigorringo, Ortuzar arrandegia, Tresnak eta Tximeleta.

ARRATIA

Amagoia Villanueva: "Herri txikietan, erakundeetan eragiteko gaitasun erreala dauka oinarri feministeak"

Amagoia Villanueva Andueza durangarra da Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Teknikari barria, Batirtze Barreroren lekukoa hartu dauana. Villanuevak lanpostu honetan luzaroan egotea espero dauala, eta zerbitzuari egonkortasun bat emon gura deutsala azaldu deutso BEGITUri.

Erredakzinoa

Landa eremuak eta herri txikiak maite dituala dino teknikariak eta bere ibilbide profesionalean, 15 urtez, burujaubetza agroekologiko proiektu komunitario baten egin dau behar. Baina "beste autonomo askori gertatu jakon moduan", pandemia sasoian ezin eutsala eutsi ikusi eban eta holan, bere beste lanbidera bueltau zan, Bardintasun teknikaritzara, hain zuzen be, Gehilan 2000 enpresan.

Eta Arratiako Udalen Mankomunitateak Gehilan 2000 enpresea dauka azpikontratauta Bardintasun Zerbitzurako.

Bai, Gehilan 2000k hainbat adjudikazino daukaz. Deitu eusten eta lehenengo espektatibea 10 eguneko baja bat kubridutea zan; gero sei hilabetekoa eta gero heldu zan proposamen hau, Arratiako bailarako zerbitzuari erantzuna emoteko. Niri planteau eustenean lekualdatzea hona, izan zan eskaini eustelako egonkortasun tenporal bat. Printzipioz Arratiako Bardintasun Teknikaria luzarorako izateko esperantzeagaz nator.

Zer topau dozu hemen? Zer espero dozu?

Nire lehenengo helburua da herri mailako mobimentu feministearen izakerea ezetu eta ikusi zelango artikulazino maila daukan. Hau bailara bat da eta herri bakotxean dago talderen bat. Mankomunidadearen egiturea be ezetu behar dot, zerbitzua bera be bai, dagozan aukerak eta mugak... Helburu nagusi moduan ildo finko bat sortu gurako neuke erakunde eta herritartasunaren artean. Hori da sumatu dodan lehenengo beharrizana. Gero, jakina, egitarauak be bete behar dira, sortu behar dira kanalak, eta eginbehar guztiei behar daben erantzun maila emon behar jakie. Herri mailan, jentea ez dagoala zerbitzuagaz oso gustura sumatu dot, eta daukan egitura bereziak emoten deustaz klabe batzuk horren zergaitia ulertzeko.

Arratiako mobimentu feministea eta bardintasunaren artikulazinoa, nahiko berezia eta nortasun handikoa iruditu jata, oso interesgarria. Ni landa eremu eta herri txikien guztiz maitale naz eta gura dot erreferente bat sortu daigula, erreala eta iraunkorra, zerbitzu mailan. Iraunkorra zerbitzuaren aldetik. Zerbitzu ona emotea da inportanteena, lan hori egiten daben personetatik harago.

Erakunde eta herriaren artean alkarlana bultzatu behar dala ikusi dozula dinozu.

Bai, hori da. Niretzat, komunikazinoa egon behar da norabide bietan, eta zerbitzuak artikulau behar dau hori. Erakundeek egitura bat daukie eta legeek marketan dabez egin behar dabezan gauza asko, Bardintasun Planak, berbarako. Baina herriak egingo dau plan horreek ez jaustea. Batez be, herri txikietan. Izan be, askotan, erakundeen planak errealidadetik apur bat urrun egoten dira, azpikontratautako zerbitzuen bitartez egiten dira-ta, eta, orokorrean, ez dabez herrien nortasunak ezetuten; planen egiturea, balioak eta abar da ezetuten dabena. Eta planok egokitu egin behar dira herri zehatz horren kapazidade eta helburuetara.

Zeintzuk dira zure lehen egitekoak?

Menperatzea udalerri mailan dagozan 7 plan eta diagnosiak; hau da, bakotxa zein maila edo zein pausutan dagoan barneratu, eta erakundeakazko euskarri hori sortu. Baina batez be, lortzea Bardintasun Zerbitzua izan daitela, benetan funtsean dana: oinarri feministeak daukan bitartekaria erakundeetan eragiteko. Ze, uste dot, herri txikietan, erakundeetan eragiteko gaitasuna erreala dala.

Amagoia Villanueva.

LEMOA

Gazteen emanzipazinoaren diagnostikoa egingo dau Lemoako Udalak

Erredakzinoa

Lemoako Udalak gazteek emanzipetako dituen zailtasunak eta oztopoak ikusita, gazteen emanzipazino diagnostikoa ipini dau martxan. Prozesua zemendian amaituko da, eta fase bi izango ditu.

Lehenengo fasean, 16 eta 34 urte bitarteko gazteek inkesta bat erantzun behar dabe. Inkestearen helburua, Lemoako gazteek emanzipazinoaren eta etxebizitzaren egoerearen inguruan dituen eretxiak jakitea da eta udalaren webgunean bete daiteke, *https://labur.eus/GazteEmantzipazioa* estekan. Proiektuaren barri emongo dauan gutuna bialduko dau etxeetara Udalak.

Bigarren fasean, inkestearen bitartez identifikautako interes arloak eta beharrak landuko dira. "Horretarako, lan taldeak sortuko dira gai honen inguruan sakontzeko eta, aldi berean, espazio informalak be sortuko dira gazteen artean ohikoak diran hainbat espaziotan, gazteen beharrak identifikau eta proposamenak jaso ahal izateko" azaldu dabe Udaletik.

Diagnostiko hau ez da Lemoako Udala gazteen emanzipazinoagaz lotuta garatzen dagoan proiektu bakarra. Alokairuagaz laguntzeko, Udalak gazteei dirulaguntzak be eskaintzen deutsez, eta hilabete honeetako Elkartrukea dinamikearen gaia, etxebizitza komunitarioak eta kooperatiboak da.

GARTZEN MARTINEZ SAGARNA

"Argazkien esentzia, momentua harrapetea da"

Bagilaren 19ra arte, Gartzen Martinez Sagarna igorreztarraren, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* argazki erakusketea egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Erakusketa honetako argazkiak, 2017an hasi zan egiten Martinez herri kirol txapelketetan. Kirolari batzukaz be argazki saioak antolatu ebazan eta 8.000 irudi inguru sortu ditu guztira holan. Horreen arteko 24 aukeratu ditu Igorreko erakusketarako.

Gartzen Martinez.

Erredakzinoa

Argazkilari lanak munduko txoko askotara eroan zaitu...

Bai. Ikasketak egiten be, atzerrira joan behar izan nintzan, eta beharrean be, beti nabil gora eta behera. Ogibidez argazkilaria izanda, lanak leku askotara eroan nau: Egiptoko jantzari garaikideak erretratau dodaz, esate baterako, nire lan personalerako, eta Parisgo PSG taldeko futbol jokalariak edo Ingalaterrako F1 lasterketa gidariak, lan komertzial batzuetarako. Suitzako mendietan edo Gales-eko parke naturaletan be ibili naz, beti erronkei aurre egiten, personaiak ezetu eta eurekaz alkarlanean irudiak sortuten batzuetan, eta logistika eta teknika inguruan besteetan, sano aberasgarria dan lan honetan.

Urrunera joan arren, oingoan hurreko gaia eta hurreko personaiak dakarzuz erakusketa honetara.

Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria erakusketea 5 urtez herri kirolen inguruan egindako lan sakon baten aurkezpena da. 24 irudi aukeratu dodaz Igorreko Kultur Etxean erakusteko.

Bertoko gehienontzat ezaguna dan mundu horretako kirolari eta personaiei argi apur bat ekarri eta eurak eta ikuslearen artean zubi bat eregi gura izan dot, beste gauza batzuen artean. Baten batzuk ezetuko doguz, arratiarrak dira, baina zenbat dakigu euren herri kirol jarduera eta lan itzelaren gainean? Tradizinoan geratuten gara askotan, eta hori ondo dago, baina handik urrunago begiratuten be jakin behar da. Astrid Villanueva Zaldo ikertzaile eta idazle mexikarrak lagundu dau erakusketako tesia landuten. Astrid zinema, argazki eta arte arloan ibili da lanean mundutik zehar eta nire lana ikusi ebanean atoan sartu zan saltsan.

Kirolarien argazkietarako zerk erakartzen zaitu? gorputzek? mobimentuek? gorputzen muga eta potentziek?

Kirolari, jantzari, musikari... sensibilidade berezia daukien gehienek erakarten nabe, personek eurek, horregaitik erretratuak beti dagoz presente. Gainera, kirolari izanda, mobiduteko gaitasun berezia daukie bai, eta orduan mobimentu hori harrapetea gustura egiten dot, argazkien esentzia da, momentua harrapetea.

Aitzol Atutxa.

Beste batzuetan, futbolari ezagun baten argazkiak egitearen erronkea da beteten nebana; ekoizpen lan handia egoten da, jente asko zuzendu behar da eta argazkiak egiteko denpora gitxi dago eta horrezaz gainera, irudi bereziak sortzea espero izaten da.

Igorreko erakusketeak ze lotura dauka zure beste lanakaz? Eta ze berezitasun?

Kirol munduan lan asko egindakoa naz eta ni hasi nazan herriko kultura eta gizartearen parte dira herri kirolak, loturea nahiko argi dago. Berezitasuna, irudietako personaiak eta jarduerak eurak dira eta zelan jarduera honeek baserri eta etxeetako zereginak ziran/diran; hau da, zelan behar horreek, apustu eta desafioak bitarte, kirol bihurtu eta mantenidu diran. Hori beste kiroletan ez da gertatzen.

Argazkietako kirolariak danak dira apartekoak baina erakusketan agertzen diran personaia asko Arratia inguruko ezagunak dira: Aitzol Atutxa, Irati Astondoa, honen aita "Pabi" Astondoa, Tubi Bustinza, Jon Loiola...

Egongo da horreen artean, zuretzat esangura berezia daukan argazkiren bat, ezta?

Ezta erraza bat aukeratutea... Karmele Gisasola agertzen dan bat izan ahal da, zuri-baltzean dagoan argazki bakarrenetakoa. Sano eskuzabalik hartu ninduen berak eta "Zelai" bere aitak euren etxean, harri eta tresna piloa prest, nik argazkiak egiteko... Etxerako bueltan be marmolezko loreontzi bat eta euren oiloen arrautzakaz etorri nintzan, esker onez beterik.

Pabi Astondoaren argazkia be beste bat izan ahal da; hain gaztea ez dan eta agertzen dan kirolari bakarra da-ta (sasoirik ez dau falta, halanda be). Beragaz batera Zaldibiraino joan eta ia egun osoa emon genduan segalari txapelketan. Handik urten ebana argazkirik onenetakoa da.

Erretratuak dira esanguratsuenak?
Egia esan kirola bera ez da buruan daukadan ardurea, aurrean daukadan personea da balioa daukana. Persona horren mamia, eta zergaitik egiten dauan egiten dauana. Horregaitik kirola egiten, jantzan zein beste edozein jardueran argazkiak egin arren, beti aterako dot persona horreen erretratua.

Zer da argazkilaritzea zuretzat? Ogibidea izateaz aparte, artea be bada. Zer suposatzen dau honek?
Argazkilaritzea batzuetan artea izan ahal da, beste batzuetan erregistro hutsa. Eta beste gauza asko. Inoz amaituko ez dan debatea dago hor.

Ni ez naz guztiz trebea jenteagaz hartu-emonetan, eta kamareak aukerea emoten deusta personakana gerturatu eta alkarregaz gauzak sortzeako. Hori da niretzat argazkilaritzea: atxaki bat. Zeozelan binkulo bat emoten da eta momentu intimoak be sortzean dira. Horrek emoten deusta bizia. Adibidez, Karmele Gisasola harrijasotzailearen argazkia ikusten badozu, harrizko bola handia lepo gainean, begiak itxita daukazala konturatuko zara, imintzino lasai eta barea dauka. Hori ez da kristoren indarra egiten dabilen persona baten arpegikunea, baina batzuetan momentutxo bereziak emoten dira eta horreei adi egoten naz.

Gaur egun danok daroagu kamara bat aldean eta jentea parau barik ibilten da argazkiak ateraten. Ze eragin izan dau horrek argazkilari profesionaletan?
Hainbeste eta hainbeste irudi sortuteak, eta batez be sare sozialetan egiten dan erabilereak kultura bisuala aldatu egin dau. Oin irudiak sortu eta konsumiduten diran modua guztiz desbardina da. Agentzia, marka edo produktoreek eskatzen dabezan irudi motak be desbardinak dira horren ondorioz.

Karmele Gisasola.

HERRI ARGIA
Baserriko lanetik, gaurko kirolaria

2017 urte amaieran lanbidez argazkilaria dan Gartzen Martinez Sagarna, kirol irudietan trebaturik, sokatira, harri jasote, lasto botate, txinga-eroate, sega, aizkora... txapelketetan irudiak egin eta jasoten hasi zan. Aldi berean, herri kirolen diziplina desbardinetako kirolari batzuekaz argazki saioak antolatu ebazan. 8.000 irudi inguru sortu ditu guztira 5 urtean zehar, Bizkaian gehien bat.

Erakusketa honetan agertzen diran argazkiak bi arloen adierazgarri dira. Alde batetik, landa, plaza, frontoi eta probalekuetan egiten diran txapelketa eta probak dokumentetan dituen irudiak dagoz; han Gartzen, kamera eskuan, kontuz eta isilean kirolarien inguruan mobidu zan. Beste alde batetik kirol diziplinak irudikatu eta islatzen dituen argazki saioak dagoz: azkoran, harri jasoten eta giza-probetan beste batzuen artean; hemen zerrek, sokek, azkorek, harriek... funzino estetikoa hartzean dabe. Herri kiroletako diziplinak dokumentau eta praktika islatzen daben irudien artean desbardintasunak egon arren, badago harremanik euren artean: biek erakusten dabe non sortzean dan kirolariak hasi eta bere tresnak jarraitzen dauan monimentuaren ibilbidea.

Bere egunean, tresna eta erreminta horreek baserriko lanetan erabili ziran, orduan, euskaldunek euren funtsezko ondasun materialen zati garrantzitsu bat ekoizten eben baserrian. Seguruenik, lehiaketak eta erronka horreek etxe eta auzoaren mantenurako jarduerak hobetzeko modu bat izan ziran eta baita lan merkadurako erakusleiho be: herrietako plazetan langile eta baserritarren indarra eta gaitasunak neurtuko ziran. Txapelketa, apustu eta desafioek –gizonek eginda gehienbat– trebetasun handiagoa erakusten ebenen ospea eta miresmena lortuko eben.

Beharbada, baserriko bizitzak ondasunen ekoizpen-sistema nagusi izateari itxi eutsanean, lehiaketetako ateak zabaldu jakiezan kirolari barriei. Euskal Herri garaikidean andrak dagoz, eta baita munduko beste alderdi batzuetan jaiotako personak be.

Gaur egun, herri kiroletan erabilten diran tresnek, presentzia galdu dauan sasoi bateko bizimodu bategaz lotzean ditu kirolari honeek. Ha-ta guzti be, azkora, zerra, txinga, sega eta fardoen mobimentuek aurrera jarraitzen dabe.

Giza eta erreminta mobimentu hori ageri da *Herri argia*n. Argazkietatik, gorputzaren oreka, tresnen posizinoak, altxatzeko eta ebagiteko erritmoak nabarmentzen dira. Era berean, irudi honeek zubi bat eregiten dabe iraganaren eta gaurko munduaren artean. Lehen tresnak, funtsezko ondasunak sortzeako erabili ziran, gaur egun erreminta honeek kirol elementu bilakatzen dira. Irudikatzen daben mobimentua bera dira, beste barik; gorputzen eta honeek daroen tresnen desplazamentuaren lorratza.

Astrid Villanueva Zaldo

JENTILAK DIMAN

Hiru antzezlan izango ditu ardatz VIII. Jentilak Diman ikuskizunak

Maiatzaren 27an, gauez, izango da Txumuluxueta alkarteak eta Udalak antolatuten daben Dimako mitologiaren gaineko ikuskizuna, pelotalekuan. Ikuskizunaren aurretik, 22:00etan, kalejirea egongo da izaki mitologikoakaz.

<u>Erredakzinoa</u>

Hiru antzezlanek, ume eta nagusien jantzek, musikeak, koruak eta bideoek, besteak beste, osotuten dabe *Jentilak Diman* ikuskizuna. Jente-aurrean zein agerlekuaren atzekaldean, ehun bat herritarrek hartuko dabe parte diziplina artistiko desbardinetan, arbasoen mundu ikuskerea birsortzeko jaian.

Gotzon Aurrekoetxeak, Ibon Izak eta Rafa Ugaldek sortu ditue antzezlanok. "Herriko egileen sorkuntza izatea gura dogu. Herrikoek sortua, herriarentzat" azaldu deutso BEGITUri Gotzon Aurrekoetxea Txumuluxuetakoak. Mitologian oinarrituta dagoz baina oin sortutakoak dira kontakizunak. "Idea da tradizino kulturala birsortzea aldiro, ze guk ez dogu ulertuten tradizinoa ezin mobidu daiteken gauza baten moduan. Egunero sortu behar da eta egokitu gaur egungo baloreetara. Horregaitik, ondo ikusten dogu ipuin mitologiko barriak sortzea eta gero antzeztea" dino Aurrekoetxeak. Baita personaia mitologikoak. Izan be, tradizinoa performatzen dogun bakotxean, gure ideakaz buztartu eta birsortzen dogu. "Ez da sasoi haretan sortu zana, joan behar gara aldatuten eta hori da hemen egiten doguna" dino irakasleak.

Lehenengo antzelana, Gotzon Aurrekoetxearen *Basajaun eta Basandere* izango da. Basajaun eta Basandereren gainean dagozan ipuin mitologikoetan oinarritu da filologoa. Bigarrena, Ibon Izarena da "amama baten istorioa. Amama narratzaile moduan, belaunaldi gazteari kulturearen transmisore egiten dau". Hirugarrena egiteko barriz, Rafa Ugaldek bere narrazino bat antzerki bihurtu dau. Antzezlan honetan, Lei eta Edurren burrukak kontetan dira, neguari gorazarre eginaz eta personaia mitologiko barriak sortuz.

Sortu zaneko filosofiari eutsiz ikuskizun herrikoi eta multidiziplinarra da aurten be *Jentilak Diman*. Diziplina artistiko ugari jasoten ditu, dimoztarrek eurek sortu eta publiko aurrean egindakoak. Holan, berbarako, antzezlanetan, herritarrek egindako bideoak proiektauko dira eta hasikeratik egin dauan moduan, Zamakolako alkarteko abesbatzak be emonaldia eskainiko dau. Jantzeari jagokonean, herriko 8 jantzari inguruk, musika tradizional eta gaur egungoaren arteko fusino bategaz egingo dabe jantzan.

Ikuskizunean parte hartzean daben askok urteak daroez izaki mitologiko jantzita, antzerkia egiten, kantuan edo jantzan. Edo beste moduren baten parte hartzean eta gehienek behin baino gehiagotan hartu dabe parte inplikazino maila handia eskatzen dauan mitologiaren gaineko jai herritar honetan, astean-astean, bospasei hilabete lehenago hasita, ensaioak egiten.

Errifea

Ikuskizuna ikusteko, ez da izenik emon edo sarrerarik erosi behar. Antolatzaileen arabera, beti arrakastatsua izan arren, oin arte beti egon dalako lekua. Dana dala, eta gastuak kubriduten lagunduteko, errifa bat egongo da. Pelotaleku inguruan salduko dira zozketarako txartelak, gura dauanak erosi eta lagundu dagian. *Jentilak Diman* Txumuluxueta alkartea eta Udalaren arteko koproduzinoa da. Udala da laguntzaile nagusia eta herriko beste eragile batzuek be lagunduten dabe.

Jentilak Diman 2014tik

Jentilak Diman euskal mitologiari buruzko ezagutza handitu eta gaia sozializetako Txumuluxueta alkarteak aurrera daroan ekimena da. Ekimen hau mitologiaren gaineko ikuskizun desbardinakaz osotuten da: ipuin mitologikoen antzezpenak, mendi ibilbide mitologikoak Baltzolako Jentilzubi eta koben inguruan, herri girotze ekintzak eta abar... Txumuluxueta alkarteak ekimen hau 2014an hasi eban eta urtero-urtero antolatzen dau ikuskizunen bat edo beste.

Txumuluxueta Kultur eta Kirol Elkartea herrian euskal kultura (mitologia, memoria historikoa, antropologia, kirola...) bultzatu eta indartzeko helburuagaz sortu zan 1995ean.

Maite duzun Bizkaia

Jendarte gisa aurrera egin dezagun.

Kalitatezko zerbitzu publikoak herritar guztientzat.

Bozkatu

ehbildu

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!!
begitu 20
Dozenaka jarduera Gabonetako programetan
Amaia Aldai Imakume Master Cup-eko Txapeldun Lau eta Erdiko Txapelketan
Informazinoa: 649 979 115
eta inigoirua@begitu.eus

KRiSTONAK
"AhOBETEhORTZ" biniloa!!!
KRiSTONAK
AhOBETEhORTZ
elkar
www.elkarargitaletxea.eus
(+34) 618 94 79 54

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

**** INFORMAZIOA:***
- Web gunean
- Astelehenetik ostiralera
10:00etatik - 13:00 arte
Telefonoa: 94 631 73 52

MATRIKULA

Epea: maiatzean

- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu

begitu 20 urte

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.
Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpainea abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES_____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro Espainiako Kopako irabazlea da matematikoki

Garagarrilean jokatuko dan lasterketa baten faltan, Leonen lortutako urreagaz txirrindulari igorreztarrak irabazita dauka daborduko Txirrindularitza Egokitutako Espainiako Kopea.



Oskar Garro.

Erredakzinoa

Oskar Garro operazino eta osteko errehabilitazino luzearen ostean, bueltau barri da txapelketetara. Buelta ikusgarria egin dau, izan be, hiru lasterketa izan ditu eta hiruretan zapaldu dau podiuma: hirugarren postu bat eta lehen postu bi. Holan, matematikoki irabazita dauka Espainiako Kopea.

Atzen lasterketea maiatzaren 7an jokatu eban Villa de Bembibreko (Leon) zirkuituan eta bere kategoriako lehena izan zan, hamar birak 01:02:00ko denporeagaz eginda. Atzetik izan eban Paulino Fernandez, hiru minutuko aldeagaz. Oin bakarra dauka faltan, garagarrilaren 15ean Larachan, Galizia, jokatuko dana.

Halanda be, Espainiako Kopea ia-ia eskuetan daukala, Garrok argitu dau oin bere helburu nagusia maiatzaren 19aren eta 21aren artean Viveron, Galizia, jokatuko dan Espainiako Txapelketarako prestatzea dala. Garrok Euskal Selekzinoagaz hartuko dau parte bertan.

PELOTEA

GRABNIko txapel bi ekarri ditue Arratiara

Erredakzinoa

Maiatzaren lehen astegoienean, Gasteizen jokatu ziran Araba, Bizkaia, Errioxa, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroa pelota federazinoen arteko txapelketea dan GRABNIko finalak. Bizkaia izan zan ezker hormako modalidadeetako irabazlea eta lehen postu horreetako bi, arratiarrek lortu ebezan. Txapel bana irabazi eben Maialen Landajo zeanuriztarrak eta Amaia Aldai dimoztarrak.

Maialen Landajok, 22 urtez azpiko Gomazko Paleta Txapelketea irabazi eban. Zulaikagaz osotu eban Bizkaiko bikotea eta gipuzkoarren kontra lehiatu ziran, Macicior eta Murua hain zuzen be. Bizkaitarrek irabazi eben, 30-15. Amaia Aldai ostera, senior mailako eskupelotan aritu zan, binaka. Dimakoak Olatz Arrizabalagagaz osotu eban bikote bizkaitarra eta Larrarte eta Agirre izan ziran aurkariak, gipuzkoarrak. Aldaik azaldu dauanez, erraz irabazi eben, 22-12.

Amaia Aldai

GRABNI amaituta, Amaia Aldai beste txapelketa bitan dago murgilduta. Batetik, Biharko Izarrak Txapelketearen finala dauka eskura. Izan be, ligaxkako partidu biak irabazi ditu eta hurrengoa, hilaren 18an, irabazi ezkero ziurtatuta izango dau finala. Beste alde batetik, Nafarroako Foru Komunitatea Torneoa be hasi dau. Hilaren 14an, 22-10 irabazi eban Leire Galeanogaz, Olatz Beitia eta Uxue Osesen kontra.

FUTBOLA

Gorbeako Gurutzea Peñaren Batzar Orokorra eta bazkaria maiatzaren 27an izango da

Areatzako Athleticeko peñak urteroko Batzar Orokorra eta bazkaria Bainuetxean egingo dau hilaren 27an.

Erredakzinoa

Maiatzaren 27an, 11:45ean, Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñako bazkideek urteko Batzar Orokorra egingo dabe Areatzako udaletxean. Egun berean, 15:00etan, bazkaria egingo dabe Bainuetxean. Bazkarian izena emoteko, egoitzara (The Quiet Corner) hurreratu behar da eta bazkide bakotxak apuntetean 10 euro ipini beharko ditu. Izena emoteko atzen eguna maiatzaren 20a da.

Igazko bazkariko irudia.

MENDIA

Sei mendi tontor zapalduko dabez Ubidestroi Traileko lasterkariek

Maiatzaren 27an jokatuko da Ubiden, Ubidestroi Trail, 2.000 metro desnibeldun eta 28 km-ko mendi lasterketearen bigarren edizinoa.

Igazko edizinoko argazkia.

Erredakzinoa

Ibilbideko punturik altuena, Gorbeiako tontorra da (1.482 m), baina beste bost tontorretatik -Harrikurutz (851 m), Oketa (1.018 m), Aldamin (1.373 m), Arralde (945 m) eta Eneabe (782 m)- pasetan da.

Hassan Aitchau eta Oihana Azkorbebeitia igazko irabazleak be egotekoak dira. Baita beste mendi lasterkari ezagun batzuk be; Asier Larruzea eta Nuria Dominguez, tartean. Izan be, izen-emotea hilaren 22ra arte zabalik egongo dan arren, antolatzaileek 250 bat lagunek parte hartzea espero dabe.

Aurten gainera, barrikuntza moduan, Ubidestroitxo umeentzako lasterketea prestatu dabe. Arrastiko 17:00etan izango da, Ubideko plazatik hasita eta 1,5 km-ko ibilbidea dauka. Gehienez 100 umek hartu daikie parte. Parte hartzeako, 16:30ak arte emon daiteke izena txosnan eta guraso edo tutorearen baimena behar da. Antolakuntzeak, besteak beste, Arratiako eskoletara bialdu dau informazinoa umeak animau daitezan parte hartzera.

Jai giroa herrian

Lasterkariak gehi eurakaz datozanak, jente asko hurreratuko dala Ubidera egun horretan aurreikusten dabe antolatzaileek. Hori dalata, autokarabanentzako aparkalekua prestatu dabe Olalden. Herrian ez da jai giroa faltauko, musikea, jana eta umeak olgetako puzgarriakaz.

Egitaraua

Maiatzak 26, barikua

18:00etatik 19:00etara, dorsal banaketea.
19:00etatik 19:30era, *briefing*-a.
19:30etik 20:30era, Itziar Zabalaren gaineko *Amagana* filma.

Maiatzak 27, zapatua

07:30etik 08:45era, dorsal banaketea.
09:00etan, lasterketearen hasikerea.
12:00etan, puzgarriak.
15:00etan, sari banaketea.
16:00etatik, 19:00etara, Orkresta Elektrotxaranga.
17:00etan, Ubidestroitxo umeen lasterketea.
20:00etatik 23:00etara, erromeria Altxa Porru taldeagaz.

FUTBOLA

Arratia A taldeak Ohorezko Mailan jokatuko dau datorren denporaldian

Maiatzaren 13an, Urbietan Gallarta A taldearen kontra jokatutako partidua husna bardindu baeban be, matematikoki mailaz igotea lortu dau Arratiak.

Erredakzinoa

Jokatutako atzen jardunaldiko aurkarien emaitzek ligea amaituteko partidu biren faltan mailaz igotea ahalbidetu dabe. "Zorionak familia honetako kide zarien jokalari guztioi, igoerea guztiona dalako" adierazo eban Pedro Ormazabal Arratia futbol taldeko presidenteak sare sozialetan. Arratia lider dago 65 puntugaz. Datorren partidua Apurtuarte taldearen kontra jokatuko dau Urbietan hilaren 20an, arrastiko 15:45ean.

Andrazkoen Arratiako talde biek amaitu dabe ligea

Hilaren 13an jokatu eban andrazkoen Arratia A taldeak Real Sociedad B talde liderraren kontra Zubietan eta ezin izan eben ezer egin arratiarrek, 5-0 amaitu zan partidua. Ligea amaituta, Arratiak harmargarren postuan amaitu dau ligea 38 puntugaz.

Andrazkoen Arratia B taldeak be 13an jokatu eban Ibaiondo Nerbioi Erreka A taldearen kontra etxetik kanpo eta 2-3 irabazi eben arratiarrek, lehen zatia 2-0 galtzean amaitu baeben be. Seigarren postuan amaitu dau denporaldia andrazkoen bigarren taldeak 43 puntugaz.

Gizonezkoen Arratia B

Hilaren 13an jokatu eban gizonezkoen Arratia B taldeak Amorebieta B taldearen kontra etxetik kanpo eta husna bardindu eban partidua. 32 jardunaldiren ostean Arratia B bederatzigarren postuan dago 43 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Ezkurdi A taldearen kontra hilaren 21ean, eguerdiko 13:00etan.

Lemoako Harrobi

Hilaren 14an jokatu eban Lemoako Harrobi taldeak Ezkurdi A taldearen kontra eta 1-0 galdu eban. 32 jardunaldiren ostean Lemoako Harrobi seigarren postuan dago 55 puntugaz. Datorren partidua Arlonagusian jokatuko dau Ugao taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 17:00etan.

Gazteak be Ohorezko Mailara

Arratiako gizonezkoen Gazteak mailako taldeak be mailaz igotea lortu dau, hilaren 13an jokatu eban denporaldiko atzen partidua Urbietan eta 1-0 irabazi eban talde arratiarrak Galea A taldearen kontra. Ligea amaituta Arratiak 75 puntu lortu ditu eta bigarren postuan gelditu dan Sestao River A taldeari 13 puntu atera deutsaz.

Arratia A taldeko jokalariak mailaz igon dabela ospatzen.

MENDIA

Berbaldia, Ingurumen ekintza eta mendi martxea antolatu dauz Ganzabalek

Erredakzinoa

Eskualdeko BBK mendi martxea Lemoako Ganzabal Mendi taldeari antolatzea tokau jako aurten. Maiatzaren 21ean izango da eta 8,3 km-ko ibilbidea dauka. Bezperan Lemoatxaren inguruak garbituteko deialdia be egin dau Ganzabalek. Aurreko barikuan, hilak 19, izotza, mendiak eta aldaketa klimatikoa gai hartzean dauzan berbaldia egingo dau Jeronimo Lopezek Kotxepin Kultur Etxean.

Domekako martxa herrikoian parte hartu gura dabenek izena emon behar dabe aldez aurretik *www.bmf-fmv.org* webgunean. "Aurreikuspen bat egin behar dogu eta zenbat jente datorren jakin behar dogu. Hamaiketakoa eta partaide guztiek oparia eukiko dabe. Danontzat egon daiten, jakin behar dogu zenbat egongo diran" azaldu deutsie BEGITUri Ganzabaletik. Martxea 09:00etan abiatuko da 1936 urteko Gudarien Parketik Lemoatxako PR-a (8,3 km) egiteko.

Berbaldia eta inguruen garbiketea

Martxak Lemoatxaren inguruetako balio historiko eta naturalen barri emoteko balioko dau eta beste jarduera bi egongo dira aurretik horretarako.

Barikuan, maiatzak 19, 20:00etan, Jeronimo Lopezek *Hielo, montañas y cambio climático* berbaldia eskainiko dau Kotxepin Kultur Etxean. Hurrengo egunean, hilak 20, martxearen bezperan, Ganzabal Mendi Taldekoek Lemoatxaren inguruko garbiketea antolatu dabe. Parajea garbitzen lagunduten gura dabenak 10:00etan daukie batzeako hitzordua Elizondoko eleizan.

UDABARRIA BERTSOTAN

Iñaki Iturriotzek irabazi dau Dimako bertso-saioa

Erredakzinoa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarria Bertsotan sailkapen faseko saioa jokatu zan maiatzaren 11n Dimako eskolan eta Iñaki Iturriotz igorreztarra izan zan irabazlea, 182 puntu lortuta. Holan, bigarren da A moltsoko sailkapen orokorrean, Aissa Intxaustiren (203,5 puntu) atzetik, beste saio bi falta diranean. Gai-emoile, Arantzazuko Igor Menika ibili zan eta idazkari beharretan, Ariane Elejabarrieta lemoaztarra.

Sano giro arratiarra egon zan Dimako saioan. "Oholtzan giro polita eta konfiantzazkoa sortu genduan sei bertsolari eta gai-emoileen artean eta asko poztu ninduan betiko Dimako bertsozaleak barriro ikusteak, urte batzuen ostean. Eskerrak emon gura deutsedaz hurreratu ziralako. Aitatu be gurako neuke bertso eskolako talde gazte barri eta etorkizun handikoa etorri zala, pankarta eta guzti, bere berotasuna eskaintzera. Hemendik atxina, eurena da plazea" azaldu deutso BEGITUri Iñaki Iturriotz bertsolariak.

Bigarren, Aitor Arrutia Azkuetak egin eban Diman 180'5 puntu lortuta; ostean, Koldo Gezuraga Seijido 172'5 puntugaz; Ander Sarriugarte Garcia 167'5-egaz, Iker Garitagoitia Astigarraga 166 puntugaz eta Peio Lago Iturriaga 129'5-egaz geratu ziran.

A moltsoan be dago Udabarria Bertsotan fasean parte hartzean dagoan beste bertsolari arratiarra, Illart Gumuzio Larrazabal, sailkapen orokorreko 11. postuan, 141 puntugaz. Gumuziok, maiatzaren 4an izan eban Urdulizen neurketea eta seigarren geratu zan.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketea

Erdira heldu da Udabarria Bertsotan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea. Guztira 8 saio egingo dira eta 48 bertsolari dabiz parte hartzean. Maiatzaren 18an eta 25ean jokatuko dira falta diran bina saio (A eta B moltsoetakoak). Izan be, bertsolariak moltso bitan dagoz bananduta eta moltsoko puntuazinorik altuena daukiezan bertsolariek eskuratuko dabe udagoienean jokatuko dan Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzeako txartela.

ARRATIAKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako ikasleak bideoklip bat grabetan dabiz

Erredakzinoa

Arratiako Musika Eskolako eta Elorrioko Musika Eskolako ikasleek Bilboko Balea grabazino estudioan abesti bat grabau eben aprilean, Igorreko Asier Ercilla soinu teknikariagaz. Estudiora 25 bat ikasle joan ziran grabetan eta bideokliperako, 13 eta 18 urte bitarteko 40 ikaslek emon dabe izena.

Bideoaren grabazinoa maiatzaren amaieran egingo da Arratiako hainbat lekutan. "Saiatuko gara bailararen aniztasuna islatzen irudiotan eta horregaitik hainbat lokalizazino aukeratu doguz; bai naturakoak baita herrigunekoak be" azaldu deutso BEGITUri Gaizka Peñafiel Arratiako Musika Eskolako irakasleak.

Ikasturte amaierarako prest egongo da bideoklipa. Musika Eskolearen webgunean eta YouTube kanalean ipiniko dabe ikusgai.

Ekoizpena ikasgai

Proiektu honen asmoa ikasle gazteei erronka barriak jartzea dala dino Peñafielek. "Entzunaldiak egiten doguz urtean zehar eta egingo dira aurrerantzean be, baina garrantzitsu ikusten dogu motibetako tresna eta aukera barriak be eskaintzea Musika Eskolan urte batzuk daroazenei. Musikari askok ez dabe grabazino estudioko esperientzia biziten inoz, eta benetan aparta da han sortzean dana. Presino edo urduritasun puntua egoten da, baina gero emaitza entzutean txundituta geratuten dira danak. Eta bideoklipean adierazkortasuna izango da gehien landu beharko doguna. Bai bideoklipean, eta baita estudioan be, prozesu guztia azalduko jakie ikasleei ulertu dagien zelan egiten diran produkzino profesionalak" dino irakasleak.

MUSIK & BEER

Nazinoarteko musikea eta bertako jana nagusi, Areatzako jaialdian

Erredakzinoa

Areatza Musik & Beer jaialdia, bagilaren 2 eta 3an izango da eta nazinoarteko musikearen aireak ekarriko ditu Areatzara gurean egindako garagardao artisauakaz dastatzeko.

Bariku arrastian, 19:00etatik aurrera, Edgar Blues Triok (Katalunia), La Perra Blancok (Andaluzia), Henrik Freischladerek (Alemania) eta AEBko Eric Steckel-ek kontzertuak eskainiko dabez. Zapatuan, goizetik hasiko da musikea, Kallartean, erreka ondoko gune barrian, country, blues, rock eta beste musika estilo klasikoez inguruak beteten. Han, Bob Wayne and The Outlaw Carnies AEBko taldeari, James Room bilbotarrari eta Suitzako Basement Saints taldeari entzuteko aukerea egongo da 12:00etatik aurrera. Jan eta edanari jagokonean, Areatzako tabernetako aukereari, *foodtruck* bik; Mafaldo eta Dando la brasa, eta Euskal Herriko 4 ekoizlek eskainitakoa gehituko jako; Balmasedako Kaitxo kafe eta txokolateak, Durangoko Crisla Sweets gazi eta gozoak, Ama Txo gazta ekologikoa eta TXP Txomin Parrila. Basqueland Brewing-en Hernaniko garagardao artisauak be ez dira faltauko.

Arrastian, 18:00etatik aurrera, jarraituko dau musika jaialdiak. Orduan, Los Retros (EH), Atraco (Madril), Komodor (Bretainia), Basement Saints (Suitza) eta Koritni (Australia) izango dira agerlekuan, euren soinu poderetsuakaz. Ostean, Galdakaoko dj Alaik luzatuko dau jaia.

BERTSOLARITZEA

eRRe. Aldarri bat bertsoz egongo da Arantzazun

Erredakzinoa

Bagilaren 1ean, 19:00etan, *eRRe. Aldarri bat bertsoz* ikuskizuna egongo da Arantzazuko Kulturgunean. Bertsoak, antzerkia, musikea, narrazinoa eta jantzea batzean ditu, bertsolaritzea eta bitasunaren gainean hausnartzeko. Haizea Arana, Oihana Arana, Leire Vargas eta Aner Peritz dira ikuskizun honetako bertsolariak.

Dualismoa hizpide hartuta, norbere gorputza eta bertsolaritzea zeharkatzen dituen 10 eszena landuten dauz *eRRek*, hortik abiatuta, dualismoetan hausturak proposatuteko. Dramatizautako bertso-paperek, antzerkiak, helduentzako ipuin-kontaketek eta poesiak osotuten dabe kontakizuna.

MARRAZKETEA

Areatza marrazteko egun biko jardunaldia antolatu dabe

Erredakzinoa

Maiatzaren 19an, barikua, eta 20an, zapatua, *Urban Sketch* elkarretaratzea egongo da Areatzan. *Urban Sketch* hastapen tailerrak, marrazki poteoak, herria marrazteak, bazkariak eta kontzertuak osotuten dabe ekimen honen egitaraua.

Urban Sketch hastapen tailerra, Martin Ortega marrazkilariak emongo dau, barikuan 17:00etatik 18:30era, eta 30 euroko prezioa dauka. Izena aldez aurretik emon behar da 617 332 691 telefonoan.

Ikastaroaren ostean, 19:30ean poteoa egongo da herrian zehar.

Hurrengo egunean, eleizan batuko dira 11:00etan, herria marrazteko interesa daukien artistak, marrazteko ibilbide bat egiteko. Bazkaria, 15:00etan izango da, bakotxak eroaten dauanagaz baina alkarregaz; beti be, Areatza marraztearen esperientzia, berbabide izanda.

Bazkalostean 17:00etan, Sabes muy bien taldearen kontzertuak ipiniko deutso amaierea *Urban Sketch* kedadeari.

ANTZERKIA

Berrehun ume inguruk hartuko dabe parte Arratiako VI. Haur Antzerki Topaketetan

Erredakzinoa

Kurkuluxetan Elkarteak antolatuta, bagilaren 1, 5, 7 eta 8an egingo dira Arratiako VI. Antzerki topaketak Igorreko Kultur Etxean. Bertan, Areatza, Artea, Igorre eta Lemoako eskolek hartuko dabe parte eta 9 lan taularatuko ditue. Parte hartzaileak 9 eta 12 urte bitartekoak dira. Areatzako eskolako ikasleek, *Oz-eko mago harrigarria* aurkeztuko dabe; Arteakoek, *Txipiroi irla* eta *Kantauriko piratak*; Igorreko eskolakoek barriz, *Edabe magikoa*, *Gaixo tranpatiak* eta *Enperadorearen jantzi berria*, eta Lemoakoek, *Egun bat museoan*, *7 herrialdetako argi bola* eta *Chic hotela*.

Antolatzaileen arabera, topaketon helburua "euskal giro jator baten murgiltzea, haurrentzako topagune erreferentzial bat bilakatzea eta jarduera honen bidez euskeraz bizitea" da. Ez dagoala lehiaketarik azpimarratzen dabe, "alkar ezagutza, alkarregazko atxikimentua eta lagunak egiteko leku eta giro egoki bat" baino.

Kurkuluxetan alkartekoek, ikasturtean zehar dramatizazino klaseak emoten ditue ikastetxeetan, eta horreekaz baliabideak emon gura deutseez umeei, publiko aurrean berba egiteko, lotsea kentzeako, norberaren gorputza ezetuteko eta alkartasuna eta laguntasuna bultzatzeko.

IKUSKIZUNA

La Glo Zirko konpainiak jantza bertikala eta akrobaziak dakarz Igorrera

Erredakzinoa

Maiatzaren 26an, 19:00etan, egongo da La Glo Zirko konpainiaren *Ensueño*, ametsen munduan inspirautako ikuskizuna Igorreko Goiko Plazako frontoian.

Ensueño La Glo Zirkoren hirugarren ikuskizuna da, *Sacred* eta *Cabaret* izenekoen ostean. "Lo egiterakoan, gorputza hilda balego bezala geratzen da: ez dau ikusten, ez dau entzuten, ez dau sentiduten, ez dau konzientziarik, ezta perzepzinorik be. Gizakiaren ahalmenak inaktibo bihurtzen dira, baina espirituak bizi eta iraun egiten dau. Oindino gehiago, beraren gaitasunak sakonagoak bihurtzen dira, gorago hegan egiten dau, bere adimena handiagoa da. Gure bizitzaren ia heren bat lotan emoten dugu; fisikoki, ezin dogu amestu barik aurrera egin, oinarrizkoa da arnasea hartzea, edatea bezala. Ametsak nora joaten diran, desagertu, airean hegaz edota kolektiboan nahasirik geratu egiten diran jakitea ezinezkoa dogu" dino sinposiak.

Gloria Peon da La Glo Zirko konpainiaren sortzaile eta zuzendaria. Oin dala hamar urte hazi zan espektakulu munduan modu profesionalean, batez be aereoetan. Jantzea eta zirkuaren fusinoa egiten dau bere lanetan.

MUSIKEA

Pre-Dimetal Fest izenpean antolatutako kontzertuak hilaren 26an

Erredakzinoa

Maiatzaren 26rako antolatu ditu Dimetaleroak Kultur Elkarteak, pre-Dimetal Fest 2023 izenpean, Gasteizko Engandina eta Lautada taldeen kontzertuak. Abaroan izango dira kontzertuok, 22:00etatik aurrera.

Engandina taldeak *Once Created, Once Sold...* hiru kantez osotutako EPa kaleratu eban 2022an. Laukoteak, post-hardcore musikea egiten dau, "agresibidadea eta emotibidadea nahasten ditu, gitarren konposizino melodikoak ahots lazgarri eta zuzenakaz konbinetan dira, angustia existentziala kanporatuz eta aurkakoa eta ezezaguna dan mundu baten kontra eginaz" dinoe antolatzaileek.

2016an sortutako metal taldea da Lautada. Aurretik, Railgun izeneko taldean egozan Lautadakoak eta abestiak ingelesez kantetan ebezan. Kide batek alde egin ondoren, 2020ko konfinamentuan proiektuari buelta bat emotea ebatzi eben, taldearen izena aldatuz eta musika estiloa, melodiak eta letrak barriztauz. Heavy metal estiloko musikea egiten dabe euskeraz. 2022an atera eben lehenengo diskoa *Lautada* izenekoa.

IKUSKIZUNAK

Umeentzako ikuskizun bi egongo dira oingo hamabostaldian Lemoan

Erredakzinoa

Maiatzaren 26an, 18:30ean, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoek, *3, 2, 1... eskolara goaz!* ikuskizuna eskainiko dabe eta 31n, Perli eta Koxkolok *Abentura zirarragarria* izeneko ipuin kontaketea egingo dabe, 18:30ean, Kotxepin Kultur Etxean.

Kurkuluxetan Kultur Elkarteko pailazoak dira Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak, Zirtada antzerki taldetik sortutako konpainia. *3, 2, 1... eskolara goaz!* lanean, eskolako lehenengo eguna kontetan deuskue. "Zelangoa izango da euren eskolako lehenengo eguna? Zertan ibiliko dira jolaslekuan? Euren eskola egunetara konbidauko gaitue, musika klasea, gorputz hezkuntza, hamaiketako ordua... Zoritxarreko ezusteko azterketa zelan gaindituko dabe?". Olgau eta jantzan eta kantuan egingo dabe pailazoek eta publikoak.

Literaturea abenturak biziteko

4 eta 7 urte bitarteko umeentzako dago gomendatuta *Abentura zirraragarria* ipuin kontaketea baino gehiago dan antzezlan musikatua. Ikuskizun honetan, Perlik eta Koxkolok istorio eta abentura liburuei omenaldia egiten deutsee: Verne, Stevenson, Defoe... "Abenturaz beteriko ipuin musikal dibertigarria, alkar hobeto ezetuten eta gehiago maitatzen ikasteko. Haurren irudimena biztuko dogu eta familia giroan primeran pasauko dogu" dinoe euren webgunean.

DUNBA

Igorreko Azoka solidarioa

Datorren 2023ko maiatzaren 19an (barikuan) arrastiko 16:30etik aurrera, Inazio Zubizarreta Eskolako Hezkuntza Komunitateak (IGE, ikaslegoa eta Hezkuntza Taldea), Azoka solidarioa antolatuko dau eskolako patioan.

Inazio Zubizarretako LH 6. mailako ikasleak

Proiektu hau, batez be aurrerantza atera dabenak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak izan dira.

Arrasti horretan, eskolan bertan batu doguzan bigarren eskuko gauzak (liburuak, jolastailuak, osagarriak...) eta gelan, Plastika saioetan, eskuz eginiko gauzak saltzeako egongo dira. Honetaz aparte, ule-apainketea, atzazalak eta arpegia margozteko aukerea izango dabe txikitxoenek, donazino txiki baten truke.

Meriendetako ordua ailegauko danez, gose diranentzat, geuk eginiko jana (bizkotxoak, tartak, gailetak...) be salduko doguz.

Edizino barri honetan, AMEgaz (Arratiko Merkatarien Elkartea) hartu-emonetan ipini gara eta herriko merkatariei ahal daben neurrian, parte hartzeako eskatu jakie.

Bilduko doguzan ondasun guztiak saltzean ipiniko doguz merkadu horretan. Edozein donazino (produktu solte, zerbitzu edo janari/edari-balea) baliogarria izango da arrasti horretan errifauko doguzan otzarak beteteko.

Azokan aterako dogun diru guztia, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak talderako izango da. Euren proiektuan migratzaile eta gudatik iges egiten daben errufujiaduei laguntzea eskaintzen jakie.

Eskolako Aste Kulturala zala aprobetxauz, maiatzaren 3an Artea Sareko Malu eta Zula eta Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko Arantza geure eskolara etorri ziran. Bertan azaldu euskuen 3. zikloko ikasleei, geure egunerokotasunetik hur ez dagoan beste errealidadea: gizaki askok guda, gosete eta idea politikoengaitik, euren herrietatik, derrigortuta alde egin behar dabela.

Berbaldia amaituteko, hizlariek eukiezan gailetak banatutean, ikusirik danontzat ez egoala, gailetak zatitu ziran eta holan ikusi genduan dagoana banatuten bada, danok daukagula aukerea gaileta zatiak jateko. Demostrazino ederra izan zan.

Etorri Azoka solidariora, mundua hobetzeko aukeratxo bat da eta!

Maiatzaren 3an egindako berbaldia Inazio Zubizarretan.

AGENDEA

Maiatzak 16

ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

18:00etatik 20:00etara, jubiladuen alkarteak antolatutako Bertiz eta Elizondora urtekerarako izen-emotea jubiladuen lokalean.

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Guraso Elkarteak maiatzaren 26an egingo dauan Merkatu Txikian saltzeako objetuak (liburuak, jostailuak, umeentzako gauzak...) bilduko dauz. Eskolako tejabanako txokoan itxi daitekez 09:30etik 09:45era.

Udabarri osoan, Gorbeia parkeko "Bide bazterrak, zelaiak eta basoak zain ditzagun!" baimendutako aparkalekuetatik kanpo ez aparketako konzientziazino kanpainea.

ARANTZAZU

Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolak bagilaren 3 eta 10erako antolatutako *¿Qué hacemos con nuestros privilegios?* tailerrerako izen-emotea zabalik Arratiako Udalen Mankomunitatean, 94 631 17 17 eta 688 627 393 telefonoetan edo udaletxeetan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.16:30etik

19:30era, maiatzaren 19ra arte, maiatzaren 27ko Arantzazura Artzain Eskolara familia urtekerako izen-emotea liburutegian.

Maiatzaren 19ra arte, bagilaren 7an izango dan *Irakurketa erreza* berbaldian parte hartzeako izen-emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 26ra arte, jaietako paella egunerako izen-emotea liburutegian.

DIMA

Maiatzaren 26ra arte, udaleku irekietan izena emoteko epea *kultura.dima@bizkaia.org* helbidean 2010-2018 urteetan jaiotakoentzat. 43 euro asteko/umeko; 39 euro asteko/umeko neba-arrebek. 1. txandea garagarrilaren 3tik 7ra, bigarren txandea, garagarrilaren 10etik 14ra eta garagarrilaren 14tik 15era gaupasa Indusin.

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

IGORRE

Bagilaren 19ra arte, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* erakusketea Kultur Etxean.

Maiatzaren 29ra arte, Igorreko udaleku irekiak 2023 izena emoteko epea zabalik. Matrikula fitxa Kultur Etxera eroan behar da.

09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Mailegu zerbitzua, arrastiz astelehenetik eguenera eta goizez barikuetan eta umeen jai eta opor sasoian.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

LEMOA

Hilaren 28ra arte, *Euskal Herriko paisaiak* Eñaut Aiartzaguena Bravoren erakusketea Kotxepin Kultur Etxean.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean

ZEANURI

2011 eta 2014 bitartean jaiotakoak, bagilaren 21etik 23ra Gorbeiako udalekuetarako eta 2007 eta 2010 bitartean jaiotakoak garagarrilaren 10etik 14rako udalekuetarako izen-emotea zabalik bagilaren 1era arte. Izena emoterakoan pagau behar da; lehenengo txandakoek 100 euro; bigarrenekoek 200 euro.

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Maiatzaren 25era arte, 27an izango dan Jubiladuen alkarteak antolatutako mendi ibilaldirako izen-emotea.

ZEBERIO

Bagilaren 16ra arte, udalekuetarako izena emoteko epea zabalik.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 21erako Austarri Mendi Taldeak antolatutako mendi ibilaldietarako izen-emotea *austarrimenditaldea@gmail.com* helbidean eta 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan hilaren 18ra arte.

Maiatzak 17

AREATZA

18:00etatik 20:00etara, jubiladuen alkarteak antolatutako Bertiz eta Elizondora urtekerarako izen-emotea jubiladuen lokalean.

Maiatzak 19

ARANTZAZU

21:30ean, Mercado Negro taldearen kontzertua Herriko Tabernan.

AREATZA

17:00etatik 19:30era, *Urban Sketch* hastapen tailerra Martin Ortegaren eskutik. 30 euro. Izena aldez aurretik emon 617 332 691 telefonoan; 19:30ean, marrazki-poteoa herrian zehar.

ARTEA

19:30ean, Iñaki Salvador eta Ainara Ortegaren kontzertua Kultur Etxean.

IGORRE

16:30ean, Azoka solidarioaren eta auzolanaren hasikerea bertsolariakaz. Eskolako patioan.

LEMOA

20:00etan, BBK mendi martxea. Jeronimo Lopezen berbaldia *Hielo, montañas y cambio climático* Kotxepin Kultur Etxean.

Maiatzak 20

AREATZA

Urban Sketch elkarretaratzea. 11:00etan, eleizan geratu; 11:00etatik 14:00etara, herria marraztu; 15:00etan, jan eta marraztu; 17:00etan, Sabes muy bien taldearen kontzertua.

20:30ean, The Mooners taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

21:00etan, El Nido taldearen kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

Arratiako guraso alkarteen topaketak. 11:00etan, Goiko Plazan batu; 12:30ean ekitaldia, 6. mailako bertsolariak, jantza garaikideko ikasleak, plaza jantzak Arantzarteren eskutik, Goiko Plazan; 14:00etan, bazkaria bakotxak bere etxetik ekarritakoa, kafe eta postre mahaia Institutuko ikasleen partetik; 16:00etan, adin guztietako jolasak; 17:45ean, kalejirea Kultur Etxera; 18:00etan, Elektrotxaranga. Egunean zehar argazkiak eta bideoak egingo dira.

Akuarela tailerra emongo dau Lemoan Eñaut Aiartzaguenak

Maiatzaren 17an, 17:30ean izango da, *Urluma, urmargo* izeneko tailerra, Lemoako Kulturguneko Artegelan. Hilaren 28ra arte, Kotxepin Kultur Etxean ikusgai dagoan *Euskal Herriko paisaiak* erakusketearen egileak, Eñaut Aiartzaguena Bravok berak emongo dau tailerra.

Ordu biko saioa izango da eta 12 urtetik gorakoentzat da. Tailerrerako behar dan materiala irakasleak eroango dau. Izena aldez aurretik emon behar da udaleko webgunean, *https://kultura.lemoa.net/sarrerak* estekan.

LEMOA

10:00etan, BBK mendi martxea, ingurumen jarduerea Lemoatxan. Lemoatxaren inguruko garbiketea Elizondoko eleizan.

ZEBERIO

Uriondoko jaiak. 13:00etan, mezea ermitan. Ostean, barauskarria.

Maiatzak 21

AREATZA

Parketxeak antolatuta, permakulturara hurreratzeko Uparan auzoko Nano baserrira bisitea. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Oink, oink*; 19:30ean, *Los tres mosqueteros: D'Artagnan* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:00etan, BBK mendi martxea. Martxa herrikoia Ibilaldia: PR-BI 56 Lemoatxa 1937 erresistentzia gunea. Aspunta (365 m)-Lemoatxa/Gantzabal (363 m). Gudarien parkean.

ZEBERIO

07:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako mendi ibilaldiak. Petroleros (940 m)-Aizkorri (1.523 m)-Aketegi (1.551 m)-Arantzazu (731 m) 13 km edo aukeran: Petroleros-Urbia-Arantzazu 11 km. Plazan.

Maiatzak 24

BEDIA

17:30etik 18:30era, 3 eta 11 urte bitartekoentzat Onditz Mendizabalen Liburu-maleta ibiltaria liburutegian.

Maiatzak 25

AREATZA

08:30ean, Uparan Areatzako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta, Bertiz eta Elizondora txangoa.

Maiatzak 26

AREATZA

17:00etan, Merkatu Txikia eta jaia eskolako patioan. Bigarren eskuko liburuak, jostailuak, umeentzako gauzak... Tailerrak, errifea, limonadea...

DIMA

22:00etan, Pre-Dimetal Fest 2023. Engandina eta Lautadaren kontzertuak Abaroan.

IGORRE

19:00etan, *Ensueño*, La Glo Zirkoren ikuskizuna Goiko Plazako frontoian.

LEMOA

18:30ean, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoen *3,2,1... eskolara goaz!* ikuskizuna Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

18:00etatik 19:00etara, Ubidestroi lasterketarako dorsal banaketea; 19:00etatik 19:30era, *briefinga*; 19:30etik 20:30era, *Amagana* filma.

Maiatzak 27

AREATZA

Parketxeak antolatuta mendi urtekerea, Saldropo-Zarate Sarriako parketxeagaz alkarlanean. Zailtasuna: ertain-altua. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñaren Asanblada Orokorra eta bazkaria Areatzako Bainuetxean.

DIMA

VIII. Jentilak Diman. 22:00etan, kalejirea izaki mitologikoakaz; 22:30ean ikuskizuna pelotalekuan.

UBIDE

Ubidestroi mendi lasterketea. 07:30etik 08:45era, dorsal banaketea; 09:00etan, lasterketearen hasikerea; 12:00etan, puzgarriak; 15:00etan, sari banaketea; 16:00etatik 19:00etara, Orkresta Elektrotxaranga; 17:00etan, Ubidestroitxo umeen lasterketea; 20:00etatik 23:00etara, erromeria Altxa Porru taldeagaz. Egun osoan zehar, taloak, txosnea, pastelak...

ZEANURI

09:15ean, Gorbeia Jubilatu eta Pentsiodunen alkarteak antolatutako mendi ibilaldia. Landagutxi-Itsuna-Urrekoatxa-San Blas-Makaztui-Soloeta.

Maiatzak 31

ARTEA

20:00etan, batzarra: Gazte Udalekuak Donostiara. Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, 4 urtetik gorako umeentzat, Perli eta Koxkoloren *Abentura zirraragarria* ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

Danerik

GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

MOBIKORTASUN MURRIZTUA DABENENTZAT MOTORRA SALGAI
Mobikortasun murriztua edo desgaitasuna dabenentzako motorra. Libercar Urban Scooter elektrikoa. Bateria barria 2022an ipinita. Ez da erabilten 2022ko bagilatik. Interesdunek deitu 676 936 010 telefonora.

TXAKURRAK OPARITUTEN DODAZ
Ama mastina da eta aita border collie-a. Lau hilebete daukiez. Interesdunek deitu 657 724 435 telefonora.

LONJEA ALOKATZEN DOT
Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazinoa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT
Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

SALTZEAN DOT
Dimyos markako bizikleta eliptikoa eta animaliek alde ez egiteko hezi elektriko ikusezina, transmisorea eta lepokoa saltzean dodaz. Interesdunek deitu: 661 273 192 telefonora.

Lana

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizauak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA
Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

TABERNARI BILA
Axular Herriko Tabernan lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek tabernan galdetu edo *axularke@gmail.com* helbidera idatzi.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat *begitu@begitu.eus* helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera *3, 2, 1... eskolara goaz!* ikuskizunerako.**

Idoia Legarreta (Igorre)
Iñigo Karide (Artea)



2 **2022ko Areatza Musik & Beer jaialdiko kamiseta bana.**

Idoia Alonso (Arantzazu)
Itziar de Casi (Areatza)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | *www.begitu.eus* | *begitu@begitu.eus*

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hortz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta txukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

begitu.eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

begitu.eus

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA
CAMPUS ZULAIBAR
ZULAIBAR AUZOA - ZEANURI
BERRIA
AUTOMATIZAZIOKO ETA ROBOTIKA INDUSTRIALEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
GIZARTERATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO TEKNIKARIA
ELEMENTU METALIKOEN FABRIKAZIOA
INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK ETA MEKANIKOAK
MEKANIZAZIOKO TEKNIKARIA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOKO TEKNIKARIA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOA PROGRAMATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
ZULAIBAR
ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA
Etorkizunerako bermea!
www.zulaibar.net 94 673 91 16 AURREMATRIKULA: Maiatzak 8-26